

Azpeitian hitanoaren erabilera

ZAHARREK %30 HAURREK %5,5

Hitanoa Azpeitiko hizkeraren bereizgarrietako bat da, baina azken urteotan kezka sortu da belaunaldien arteko transmisioaren inguruan. Hori dela eta, ikastetxeetan lanketa berezia egiten hasi ziren duela ikasturte batzuk. Iaz, bestalde, kale neurketa egin zuten, hitanoaren osasunaren diagnostikoa egiteko asmoz. Emaitzetako bi argiak dira: gizonak emakumeek baino gehiago erabiltzen dute, eta zaharrek gazteek baino gehiago.



Amaia Ugalde Begoña

@amai_ugal

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Hamar elkarrizketetatik zortzi izaten dira euskaraz Azpeitiko kaleetan. Euskararen arnasmune izanik, hitanoa ere bizirik dago, herritar askok erabiltzen dute. Azken urteotan, ordea, kezka zabaldu da herrian; antzeman dute gazteek gutxiago erabiltzen dutela eta hitanoaren kalitatea galtzen ari dela –noka eta toka ez desberdintzea, adibidez–. Azpeitiko hizkeran berezkoa den ezauzgarria sustatu nahian, bi norabidetan egin dute lan Soziolinguistika Klusterrekin: ikastetxeetan hitanoa lantzeko unitateak sortu dituzte eta 2016an hitanoaren kale erabilera neurtu zuten.

Ikastetxeetako lanketarekin 2010ean hasi ziren. Azpeitiko hiru eskolak –Iraurgi ikastetxea, Ikasberri ikastola eta Karmelo Etxegarai ikastola– egitaspora batu ziren, eta urteotan Soziolinguistika Klusterreko kideekin elkarlanean jardun dute hitanoa lantzeko unitate didaktikoak diseinatzen eta finkatzen. Azpeitiko proiektua baino lehen, Klusterrak Urola bailaran bertan, Zumaian, landu zuen gaia, eta Azpeitian ekimen haren berri jakin zutenean, bertan ere egitera animatu ziren. Ordutik, eskolen bidez hitanoaren arau sozialak eta formak transmititzen dihardute.

Lehen Hezkuntzako 5. mailatik De-rrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara egiten dute lanketa, eta maila bakoitzean bi unitate didaktiko dituzte. Soziolinguistika Klusterreko Olatz Bengoetxeak azaldu duenez, “hitanoa erregistro bizia eta lagunartekoa izanik, ikasleek modu jolasti samarrean eta testuingurutik hurbil lantzeko proposamena egin da”. Esaterako, LHko ikasleek ingurukoei inkestak egiten dizkiete hitanoaren inguruan, eta gelan landutakoarekin *Azpeithika* kartel erakusketa osotu izan dute azken urteetan, Sana-gustin Kulturgunean. Esketxak, inkestak, azpeitiarrek hitanoarekin izandako bizipenak grabatzea... hamaika bide erabiltzen dituzte hitanoa lantzeko.

Neska eta mutilen arteko aldea

Ikasleentzat hitanoa ez da kontu arrotza; neurri handi edo txikiagoan, umetatik bizi izan dute inguruan. Ana Garate Karmelo Etxegarai ikastolako irakaslearen hitzetan, “bakarren batzuk egongo dira lanketarekin zerotik hasiko direnak, baina gehienek txikitatik dute harremana hitanoarekin”. Ama hizkuntza euskara dutenek maiz entzuten dute etxean eta lagunartean; ama hizkuntza



euskara ez dutenak, aldiz, geroago jabetzen dira euskaraz komunikatzeko modu horretaz.

Ezagutzak ezagutza, erabileran alde nabaria dago nesken eta mutilen artean. Edurne Illaramendi Iraurgi ikastetxe-ko irakaslearen esanetan, “mutilek bai, erabiltzen dute beren artean, baina neska batzuentzat arrotza da”. Arrazoiak ez dira garbiak, baina antzeman dute neska batzuentzat hitanoak ez duela prestigiorik: “Zenbait neskek dio horrela ezin dela hitz egin esaten diotela etxean, edukazio txarrekoa dela”. Ideia horiei buelta ematen eta hitanoari balioa ematen jarduten dute saioetan.

Horrez gain, irakasleek azaldu dute noka gutxi erabiltzen dela ikasgeletan. Ikasberri ikastolako Marijo Ezama DBHko irakaslea da, eta azaldu duenez, “mutilak neskei askotan toka zuzentzen zaizkie, eta neskek ere batzuetan toka egiten dute euren artean”. Ezamaren ustez, ohitura horietan eragitea ez da erraza, are gutxiago nerabezaroan: “Guk zuzen edo egoki nola den esaten badiegu, eurek kontra egiten digute, adin horretan daudelako edo”. Kontzientziazio lana egiten ari da behintzat, eta denborarekin horrek erabileran ere eragina



Azpeitian, kaleko elkarrizketetatik %18,1 izan dira hitanoz. Hitzunak zenbat eta zaharragoak are eta hitano gehiago darabilte. Gizonek emakumeek baino gehiago hitz egiten dute hitanoz.

izatea espero du: “Agian, 18-20 urterekin beste klak bat izango dute”.

Edurne Illarramendik gaineratu du mutil batzuk, euren artean hika egin arren, neskei zuka egiten dietela: “Zer-gatia galdetuz gero ez dakite erantzuten”; halaxe irteten zaie, berez, inkontzienteki. Ana Garateren hitzetan, “neskek hika gutxiago egiten dutenez, horregatik agian mutilek ere gutxiago egiten diete beraiei hika”.

Hiru irakasleek azaldu dute ikasleentzako gaia motibagarria dela. Erabileran eragitea hain erraza ez bada ere, kontzeptuak barneratzen ari direla ikusten dute, eta lanketa horrek urteen poderioz erabileran eragina izango duela uste dute.

Kaleko datuak

Euskararen kaleko erabilera neurtzen hainbat urtetako eskarmentua du So-

- » **EDURNE ILLARRAMENDI, IRAKASLEA:**
“Mutilek bai, erabiltzen dute hitanoa beren artean, baina neska batzuentzat arrotza da”

- » **MARIJO EZAMA, IRAKASLEA:**
“Mutilak neskei askotan toka zuzentzen zaizkie, eta neskek ere batzuetan toka egiten dute euren artean”

- » **ANA GARATE, IRAKASLEA:**
“Neskek hika gutxiago egiten dutenez, horregatik agian mutilek ere gutxiago egiten diete beraiei hika”

ziolinguistika Klusterrak. 2016an, lehenengoz, kale neurketa horien baitan hitanoaren erabilera ere neurtu dute, Azpeitian eta Usurbilen. Azpeitiko neurketan, kaleko elkarrizketetatik %18,1 izan dira hitanoz.

Neurketak baieztatu du herrian zegoen pertzepzioa eta Azpeitiko irakasleek ikasgeletan hauteman dutena: gizonek emakumeek baino gehiago erabiltzen dute hitanoa; gizonezkoen artean, neurtutako elkarrizketen %28,2 izan dira hitanoz, eta emakumezkoen artean, aldiz, %10,6. Nokaren erabilera

